



HAUTESKUNDEAK

EH BILDUK URKABUSTAIZKO ALKATETZA ESKURATU DU BERRIRO

XABIER ALVAREZ DE ARCAYAK ALKATE IZATEN JARRAITUKO DU.

EH Bilduren hautagaitza izan da bozkatuena udal hauteskundeetan, 409 botorekin. Ondoren, EAJ (261), PSOE (17) eta, azkenik, PP (15). Abstentzioa %31'18koa izan da.

EH Bilduk, sei zinegotzi


Horrela, Xabier Alvarez de Arcayak alkate bezala errepikatuko du eta bere taldeak sei zinegotzi lortu ditu. Oposizioa EAJk osatzen du, hiru zinegotzirekin; eta PSOEek eta PPK ez dute ordezkariarik lortu.

2019ko udal hauteskundeetan, EH Bilduk 373 boto lortu zituen eta EAJk 339. PPK eta PSOEek orduan ere ez zuten ordezkariarik lortu. Eta hauteskunde haietan abstentzioa %22'87koa izan zen.

Kuadrillako eta aldameneko udalerrietako emaitzak

Ekainaren 17an, larunbata, Udalak eratu ziren Estatu osoan. Gorbeialdean eta inguruko udalerrietan, hauek izan dira emaitzak: Aramaion, EH Bilduren ordezkaria izendatu dute alkate, gehiengo

Udal hauteskundeak 2023



osoz irabazi baitzituen hauteskundeak; Arratzua-Ubarrundian, EAJren ordezkaria izendatu dute alkate; Legutian, EAJren ordezkaria izendatu dute alkate, PSOEren babesarekin, nahiz eta EH Bilduk hauteskundeak irabazi; Urkabustaizen, hauteskundeak gehiengo osoz irabazi zituen EH Bilduren ordezkaria izendatu dute alkate; Zigoitian EAJren ordezkaria izendatu

dute alkate, PPren babesarekin, nahiz eta EH Bilduk hauteskundeak irabazi; Zuian hauteskundeak gehiengo osoz irabazi zituen EH Bilduren ordezkaria izendatu dute alkate; Amurrian EAJren ordezkaria izendatu dute alkate; eta Kuartangon EAJren ordezkaria izendatu dute alkate, PPren zerrendetan VOXeko zinegotzi baten babesarekin, nahiz eta EH Bilduk hauteskundeak irabazi.

ESKERTZA

ERRETIROAK OSASUN ZENTROAN

MEDIKUA ETA ERIZAIN BANA AGURTU DIRA

Juanma Hernándezek 31 urte eman ditu herrian mediku lanetan, eta duela gutxi erretiroa hartu du. Hernandez Pobesekoa da, mediku borrokalaria izan da eta herri-tarrengandik maitatua.

Era berean, pandemia indarrean ze-

goela Ana Ugarte Aranak erretiroa hartu zuen. Erizain gisa jardun du zentro berean 30 urte inguruz, eta baldintzek oztopatu zuten merezi zuen moduan agurtzea.

Eskerrik asko bie eskainitako dedikazioagatik!



UZTAILEAN ABIATUKO DIRA UDAKO KIROL IKASTAROAK

IGERIKETA ETA GIMNASIA IKASTAROAK IZANGO DIRA.

Uztailaren 3tik abuztuaren 3ra bitartean egingo diren udako kirol jardueretan izena emateko epea itxita dago. Izena emateko azken eguna ekainaren 28a izan da, eta bi modutara egin ahal izan da: udaletxean bertan edo kultura2 @urkabustaiz.eus helbidera informazioa eta ordainagiria bidaliz.

Eskainitakoak baino jarduera gutxiago

Eskaini diren jardueren artean, Matrio-erditzea (igeriketa) (12 euro), Igeriketa (17 euro), Gimnastika (15 euro) eta Irristaketa (8 euro), eskaera nahikorik izan ez direnez, azkenean Igeriketa eta Gimnasia bakarrik egingo dira.



ZERGAK

ONDASUN HIGIEZIN RUSTIKOAREN GAINEKO ZERGA SALBUESPENA ((2023KO EKITALDIA))

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA USTIATEGIETARAKO.

Duela gutxi argitaratu da BOEn maiatzaren 11ko 4/2023 Errege Lege Dekretua, Ukrainako guerra gatazkaren eta baldintza klimatologikoen ondoriozko lehorteari eta lehen sektorearen baldintzak larriagotzeari erantzuteko nekazaritza eta ur arloko premiazko neurriak hartzen dituen.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kuoten salbuespena, 2023ko ekitaldiari dagokiona, nekazaritza edo abeltzaintza ustiatzearen titularren jabetzakoak diren ondasun higiezinaren aldekoa, baldin eta 2023ko ekitaldian errendimendu garbia gutxienez %20 murriztu bada, 2020, 2021 eta 2022. urteetako batez bestekoarekin alderatuta. Ehuneko hori %30ekoa izango da, ustiatzeak ez badaude Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 31. artikuluan

ezarritako muga naturalak edo espezifikoak dituzten eremuetan.

Zerga salbuespena eskatzeko baldintzak

Toki erakundeek maiatzaren 11ko 4/2023 Errege Lege Dekretuaren 12. artikuluan aurreikusitako salbuespena eman ahal izateko, onuradun izan daitezkeenek honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzea behar dute:

- Landa-izaerako higiezinak, baldin eta OHZ (Ondasun Higiezinaren Zerga)ren kuotetatik salbuestea eskatzen bada, nekazaritza edo abeltzaintza ustiatzearen garapenari lotuta egon behar dute.
- Higiezin horien katastroko titularrak, jabe gisa, nekazaritza edo abeltzaintza ustiatzearen titularrak ere izan behar dira.
- Ustiatze horien titularrek 2023ko ekitaldian %20ko murrizketa izan behar dute, gutxienez, ustiatze horien etekin

garbian, 2020, 2021 eta 2022 urteetako batez bestekoarekin alderatuta. Aurreko ehuneko %30ekoa izango da, ustiatzeak ez badaude Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 31. artikuluan ezarritako muga naturalak edo espezifikoak dituzten eremuetan.

Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatzeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 31. artikuluan jasotako muga naturalak edo espezifikoak dituzten eremuetan kokatuta dauden ala ez egiaztatze, toki-erakundeek autonomia erkidego bakoitzean nekazaritza- eta abeltzaintza-arloan eskumena duten organoetara jo behar dute.

ESKOLAKO PATIOKO OBREN BIGARREN FASEA

AURREIKUSTEN DA LANAK AMAITZEA 2023KO ABENDUAN.

Urkabustaizko Udala IGEarekin eta hainbat tokiko eragilerekin batera abian jarritako proiektuaren barruan, Izarra Herri Eskolako jolastokia patio inklusibo bihurtzen ari da.

Prozesua 2020an hasi zen; orduan, hainbat eragile -irakasleak, ikasleak, gurasoak eta Udala- biltzen hasi ziren beharrak aztertu eta jolastoki berri bat asmatzeko. Patio horrek izan behar zuen eskolaren erabiltzaile mota guztiak bildu eta haien erabilera erraztuko zuena, inklusiboa, berdintasuna eta partaidetza jokoak



sustatuko zituena. Prozesu parte hartzaile baten bidez konpondu zuten.

Patioa aldatzeko lehen faseari ekiteko dirulaguntza lortu zuten. Fase horri esker, futboleko, saskibaloiko eta sedentarioa deituriko eremuak egonaldi, lurreko jolas eta arbel bihurtu zituzten.

Patioko eremu berriak

Orain, bigarren fasean, ekintza berriei ekitea erabaki da. Aurretik egindako jardueraren batekin jarraituko da, eta beste hiru eremu berri sortuko dira: panel interaktiboen gunea, sentsazio desberdinekin sortu eta jolasteko; berdegunea, zumezko labirinto batekin; eta, azkenik, oreka gunea bat, ikastetxeko ikasle guztiak barne hartzen dituen jolas berri batekin. Era berean, altuera desberdineko mahaia eta esertzeko lekuak jarriko dira.

Bigarren fase hori 2023. urtearen abendu aldera amaitzea aurreikusten da, eta aurrekontua 67.000 eurokoa da; horietatik 60.000 Eusko Jaurlaritzaren Patio Laguntza partidak estaltzen ditu.



AKATSAK POSTA ZERBITZUAN

LANGILEEN ETENGABEKO ALDAKETA ETA BANAKETA ATZERATZE LARRIAK.

Azken garaian, Urkabustaizko Udalarri eskaini zaion posta zerbitzua eskasa izaten ari da; eta azken asteotan zerbitzu hori ez eman izanak erabat sumindu du.

Udalerrri honetako langileen etengabe aldatzen ondorioz, postaria hiru hilean behin aldatzen denez, zerbitzua ez da eskaintzen udalerrriaren beharretara egokitutako baldintzetan. Bizilagunek behin eta berriz egindako kexa da, itxuraz justifikaziorik ez duten langile aldatze horiek sortarazitakoak.

Une honetan, gainera, hauteskunde garaian egonik, eta posta bidezko botoaren eskari handia dagoela, zerbitzu hori ez da behar bezala eskaintzen ari, hauteskunde orokorren prozesu garbi bat oztopatuz.

15 egun zerbitzurik gabe

Udalerrria osatzen duten herrietako banaketa 15 egun baino gehiago geldirik egon da inolako zerbitzurik gabe, eta udal zerbitzuetako eta Osakidetzako hitzorduak eta jakinarazpenak atzeratu egin dira nabarmen. Zehazki, aste hauetan, Osakidetza udalerrriko bizilagunak posta zerbitzuaren bidez deitzen ari da bularreko minbizia goiz detektatzeko programara. Eta, tames, gutun horiek hitzorduaren data igaro ondoren banatzen ari dira, posta banatzeko atzerapen horiek direla-eta.

Horregatik, Udalak Posta Buruzagitzari eskatu dio egoera honi berehala irtenbidea emateko.

Hemengo eta Hango Emakumeak

CARMEN ADARRAGA ELIZARÁN

(HERNANI, 1921 - 2004)



Espainiako selekzioko lehen saskibaloï kapitaina izan zen 1942 an.
Hiru aldiz izan zen Espainiako txapeldun bere taldearekin,
Donostiako Emakumezkoen Sailarekin Espainiako eskubaloï eta belar
hockey selekzioetan ere jokatu zuen.

Fue la capitana de la primera selección española de baloncesto en 1942.
Tres veces campeona de España con su equipo, la Sección Femenina de
Donostia-San Sebastián También jugó en las selecciones españolas
de balonmano y hockey hierba.